

Rserba: FUNTSEZKO BALIABIDEAK

SARRERA:

- Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?
- Rserbaren balio-proposameneko eskaintza garatzeko, bezeroengana iristeko, haiekin harremanak izateko eta diru-sarrerak sortzeko **beharrezkoak** ditugun **baliabideak** dira.
- Honela banatzen dira:
 - Baliabide fisikoak
 - Giza baliabideak eta baliabide intelektualak
 - Finantza-baliabideak



AZALPENA:

Gure enpresa martxan jartzeko, ezinbestekoa dugu teknologia. Izan ere, gure app-a sortzeko, **ordenagailuak** beharko ditugu. Baina baita **mugikorrak** (edota "tablet-a") ere. Rserba mugikorretan erabiltzeko bideratuta dagoelako.

Honegatik, beharrezkoak ditugun bi oinarrizko baliabide, mugikorrak eta ordenagailuak dira.

Baina baita, langileok elkar lagunduz, lan egiteko toki bat beharrezkoa dugu. Hau da, **bulego** baten beharra dugu. Honetarako, herriko udalak enpresa berrientzat jarri dituzten lokaletako bat alokatuko genuen.

Beraz **funtsezko baliabide fisikoei** dagokienez, ordenagailuak, mugikorrak eta bulegoa dira.



Giza baliabideak ere behar ditugu. Enpresan **lau bazkide/langile** gara, eta bakoitzak ezagutza desberdinak ditugu. Hau dela eta, bakoitzak bere

puntu indartsuak eta ahulak ditu. Peiok, **diseinuak** egiten ditu ezagutzak, eta Rserbaren diseinua eta app-aren animazioak berak landuko ditu batez ere. Maialenek, gure **partenerrekin elkarrizketak** mantentzen ditu, eta beraiekin adostasunetara heltzen da. Baina baita, **marketinaz** bera arduratzen da gehienbat. Karlak, gure aplikazioaren **administrazioa** eta **kudeaketaz** arduratzen da. Eta Xabier, enpresaren **finantzaketa** eta **inbertsio** arloan aritzen da. Baina enpresa barruko langileez gain, hainbat **profesionalen laguntza** eskatuko dugu, app-a martxan jarri ahal izateko. Zehazki, aplikazioen garapenean aditua den enpresa bat.



Eta azkenengo baliabideak, finantza baliabideak izango dira. Rserba guk geuk ditugun **aurrezkiekin** jarriko dugu martxan. Ondoren herriko udaletxearen partetik jasoko ditugun laguntzei esker gure enpresa finantzatu ahal izango dugu, tarte batez bada behintzat. Izan ere, diru sarrerak aplikazioa martxan jarri eta biztanleengana heltzen hasten garenean hasiko dira iristen.